

DONOSTIA, MODA- ESZENA

EUS





Donostia, moda-eszena

Miren Arzalluz Loroño

XX. mendearen hasierako hamarraldietan Donostia aisialdirako eta sozializatzeko gune nabarmena bihurtu zen nazioartean, eta moda funtsezko faktorea izan zen hori gertatzeko. *Côte Basque* edo Euskal Kostaldea turismorako lurralde gisa finkatu zen, eta, garapen horretan, Gipuzkoako hiriburuak eta Miarritzek modaren geograafia berri bat osatu zuten, espazio ezezagun bat Europako hiri handietatik at; horrek berebiziko eragina izan zuen Donostiaren garapen turistikoan eta komertzialean, eta ondorioak ekarri zituen, halaber, moda-sorkuntzaren arloan, hiriaren mugen barruan zein haietatik kanpo.

XIX. mendearen azken herenetik aurrera, Donostia sakonki eraldatu zen: zerbitzu eta azpiegitura berriak sortu ziren, nazioarteko balneario-zentro nagusietako aisialdi-aukeren parean jartzeko. Higienearen aldeko diskurtsoak zabaltu ziren, itsasoan bainatzea sendagarria zela esanez, eta, horrela, bisitari berriak hurbildu ziren hirira, ingurune naturalak eta eguraldi bikainak erakarrita. Hala eta guztiz ere, Donostia helmuga dotore bilakatzeko prozesu horretan, hau da, Donostia modako hondartza gisa hartua izan zedin, nazioarteko giro kosmopolita eta guzti, errege-erreginek hiria oporlekutzat hartzea gakoa izan zen, Miarritzen gertatu bezala. Gortesauak, aristokratak, politikariak, industria-jendea, intelektualak eta artistak, bada, errege-erreginen atzetik joaten ziren Donostiara urtero: itsasoaren eta mendiaren xarma goretsiez gozatzeaz gainera, hiriko kultur jardueretan, ekintza ludikoetan eta kirol-jardueretan parte hartzen zuten oparo.

Horrenbestez, hiri modernoetako esperientziaren bertsio trinko bat eskaintzen zuen Donostiak udaldiz udaldi: kaleak, hiribideak, parkeak, lorategiak eta paseoak; kasinoak, hotelak, antzokiak eta kafetegiak; kontzertuak, antzezlanak, maskara-dantzaldiak eta *kermesseak*. Halako lekuak, bada, oholtzen parekoak bihurtzen ziren, eta Donostiako esperientziaren funtsezko alderdi bat zen oholtza horietan jendea ikustea eta ikusia izatea, bai harreman sozialei zegokionez, baita moda-performance indibidual eta kolektiboen harira ere. Kultur adierazpenak eta ekitaldia sozialak ez ezik, eliteko kirol-jarduerak eta -lehiaketak antolatzen ziren, Parisen eta Londresen bezala: golfa, tenisa, poloa, uso-tiroa, zezenketak, zaldi-lasterketak, automobil-lasterketak eta estropadak, bai eta pilota-partidak ere, euskal herri kirolen erakustaldiez gainera.

Donostia modaren gune nola bihurtu zen ulertze aldera, testuinguru horretan gertatutako beste fenomeno bat azpimarratu behar da, izan ere, merkataritza-sare garrantzitsu bat eratu zen hirian, luxuzko salgaiak kontsumitzera ohitutako bezeroen eskaerak eta premiak asetzeko xedez; hala, bisitariek bete-betean parte har zezaketen hiriko esperientzia indibidual, sozial eta kulturalen. Donostian eta Miarritzen eliteko turismoa sortzearen ondorioz, tokiko zein kanpoko ekintzaileek beren negozioak garatzeko aukera izan zuten, eta hiriaren oparotasunean ere eragin zuen jarduera ekonomiko horrek guztiak; azkenik, atzerriko kolonia kosmopolitaren fideltasuna bermatzeko neurri garrantzitsuak izan zen merkataritza.

XIX. mendetik aurrera, Euskal Kostaldeko turismoa bultzatzeko, behin eta berriro baliatu zen euskal hondartzen dotorezia eta finezia. Nozio horiek estu lotuta zeuden dotorezia-erakustaldiekin, bainularien eta bisitarien moduen zein moden bitartez betiere. Beraz, modak sekulako garrantzia izan zuen bai Donostiako turismoaren sustatzaileentzat —hiri bereziki dotorea zela zabaltzea eta ideia hori egonkortzea nahi baitzuten—, bai turismoaren protagonistentzat ere: haientzat, dotorezia-erakustaldiak funtsezkoak ziren Donostiako esperientzian eta sozializazioan. Ondorioz, modadenden garapen nabarmenak orobat erantzuten zion behar horri, eta oihartzun garrantzitsuak izan zituen Euskal Kostaldeko bizitza sozial eta kulturalen.

Hondartza-eszenak. Estiloa eta askatasuna

Kontxako hondartza izan da, Donostiaren historian, hiriaren xarma nagusietako bat. XIX. mendearen hasierako teoria higienistek itsasoko uraren ezaugarri onuragarri eta sendagarriak azpimarratu zituzten; hala, gero eta bisitari gehiago hurbiltzen ziren olatu artean bainatzera Donostiara, eta hiriko klima leuna, hondar fina eta zerbitzu bikainak zukutzen zituzten, hiriko agintariek zerbitzu mordo bat garatu baitzuten beren erakarmen nagusiaren inguruan.

Bainulariaren bizimolde erritualez betean, eguna goizeko hamarrak aldean hasten zen, hondartzan; hasieran leku hertsiki terapeutikoa izan arren, laster asko, aisiarako eta sozializatzeko gune bihurtu zen bertakoentzat nahiz kanpotarrentzat. Gizon-emakumeak multzoka biltzen ziren olanazko toldoen azpian, hondartza-etxola zuri-urдинen aldamenean, eta solasaldi luzeak izaten zituzten albiste politikoei eta eguneroko bizitzari buruz. Eguzkiak jo, itsasgorak harrapatu, eta hondarrak traba pixka bat egin arren, derrigor mantendu behar zen janzkera dotorea, ezinbesteko premia baitzen hori Donostiako udaldietan.

Moda zorrozki kodifikatuta egon zen 1960eko hamarraldira arte, eta eguneko egoera bakoitzak bazuen bere jantzi aproposa; horretan, hondartza ez zen salbuespena. XX. mendeko lehen urteetan, gizon-emakumeak goizeko eta paseorako jantzi finenekin joan ohi ziren hondartzara: artille finezko, kotoizko edo liho lodizko trajeak, kolore argietan; gona luzeak, lisoak eta tolesdunak, parpaila eta brodatuekin, eta horiekin batera *fichu* lepodun blusa arinak eta lebita erdi-estuak, lastozko kapelak kolore gordinetan, eta, apaingarri gisa, belusezko zerrendak eta *aigrette* lumak, emakumeentzat takoidun zapatak eta gizonentzat, berriz, Errusiako larruarekin egindako oinetakoak edo botin zuriak, txarolezko eskalapo beltzekin; parpailazko

eskularruak eta zetazko mediak. Hiri dotoreetako modelo haiek sekulako ikuskizuna erakusten zuten toldoen azpian.

Moda, bereziki emakumezkoena, sakonki aldatu zen 1910eko hamarraldian; gainera, prozesu hori bizkortu zuten Lehen Mundu Gerrarekin batera etorritako aldaketa politiko, ekonomiko eta sozialek. Emakumeak lan-bizitzan sartu ziren apurka-apurka, eta, horren ondorioz, aldarrikapen femenino eta feministak ere areagotu ziren, emakumeek gizartean zuten zereginari zegokionez bai eta beren gorputzaren gaineko jabetza zela eta. Modaren esparruan, silueta eta apaingarriak sinplifikatu ziren, oihal malguagoak erabiltzen hasi ziren, aske mugitu ahal izateko, bai hirian, baita bidaietan ere, landa-eremuan zein hondartzan. Lehen Mundu Gerraren garaiko jantzien artean, jertsearen moda nabarmendu behar da, trikota eta puntuzko oihala ere deitzen zaiona; ordura arte barruko arropetan bakarrik erabiltzen zen. 1915etik aurrera, ordea, puntua modu orokorrean erabiltzen hasi ziren trajeak eta kirol-estiloko modeloak egiteko, zeinak egokiak baitziren bidaiatzeko, txangoak egiteko edo hondartzan paseoa ibiltzeko.

1920ko hamarraldiarekin batera, *sport* modaren inperioa abiatu zen: silueta zuzeneko soineko motzak, puntuz, kotoiz edo muselinaz eginak, eta, horiekin batera, lastozko kapelak, turbanteak eta txapelak, zapata lauak eta espartinak; halako arropak egokiak ziren paseatzeko eta kirol-jarduerak egiteko. Askatasuna eta naturaltasuna gailentzen ziren hondartzaren eskaintza guztiak gozatzeko testuinguruan. 1930ean, pijama polemikoa Donostiako hondartzetara iritsi zen. Praka zabalekiko konjuntuak edo monoak ziren, puntuzkoak zein lihozkoak, eta, arropa horren etsaien kalterako, guztiz eta zeharo *chic*-ak zirela uste zen Atlantikoaren bi aldeetako hondartzetan. Jantzi zabala eta soila izan arren, genero-rol tradizionalak zalantzan jartzeari dagokionez, gonenez luzera laburtzea baino larriagoa zen emakumeek galtzak jantzeak.

Hala, moralistek edo agintariek nahi luketena baino bizkorrago garatzen zen moda, batez ere bainujantziei zegokienean. Nahiz eta udal erregelamenduetan mugak finkatu ziren XIX. mendetik aurrera bainatzeko arroparen harira, eta hondartza sexuen arabera bereizi arren, aldaketaren bultzada ezin zen gerarazi.

Emakumeen bainujantzia apenas aldatu zen 1910eko hamarkadan, xehetasun txikiak kenduta: galtzak, apurka-apurka, laburtu egiten ziren, eta alkandora zabalen gainean gerrikoak jantzen zituzten emakumeek, beren gorputzaren tankera apur bat agertuz. Egiazioz iraultza, baina, 1914ko irailean iritsi zen Donostiara, gerra hasi eta gero, emakumezko artisten talde baten eskutik, «*music-halleko* izarrak»¹, zeinak bisitan etorri baitziren hirira. Beste hondartza batzuetan gertatu bezala —hala nola Deauvillen, Ostenden eta Miarritzen—, gazte haiek maillota zeramaten soinean, hau da, gizonen moduko mono bat, puntuan egina; gorputzari itsasten zitzaion, haren forma agerrarazten zuen, eta beso-zangoak ia osorik erakutsi.

Agintarien erresistentziak gorabehera, eta bainulari batzuek zaintza zorrotza gauzatzen bazuten ere, 1920ko hamarralditik aurrera, maillota izan zen bainujantzi nagusia.

Hiri-eszenak. Ikustea eta ikusia izatea

Kontxa inguruko kaleetan jarduera bizia izaten zen udaran, ohiko bisitarien etorrerarekin. Hotelak, kafetegiak, jatetxeak, lantegiak, dendak, bankuak eta zerbitzu publikoak abian jartzen ziren sukarraldi betean, eskaera handi bati erantzuteko: lan eskerga izan arren, irabazi handiak ematen zituen. Era berean, aisialdirako eta sozializatzeko eremu bihurtzen ziren Bulebarra, pasealekuak eta hiribideak, eta ikustea zein ikustea izatea funtsezko esperientziak ziren udararen protagonistentzat. Hala, hiriko espazio publikoak beste aukera bat eskaintzen zuen dotorezia agertzeko, hori elementu funtsezkoa baitzen Donostiako udaldian, eta hiriaren erakargarri nabarmen bat ere bai.

1911ko irailean kronika bat idatzi zuten, Donostiatik, *La Moda Elegante* aldizkarirako, eta testu horretan ondo islatzen da hiriko giroa, zeina, «urte-sasoi honetan, dotoreziaren, aristokraziaren eta klase aberatsen zentroa bihurtzen da; jende horrek dirutza xahutzen du dibertimendutan, kapitala inbertitzen dute barre eta pozetan, eta fortuna bat kontsumitzen luxu eta plazerean»².

Donostiako udatiarrek tentu handiz planifikatzen zuten udarako jantzitegi zabal bat, eta, horren barruan, agenda donostiar bete-beteko egoera guztietarako jantziak eta apaingarriak bildu behar ziren: hondartza-modeloak goizerako, jantziak eguerdiko paseorako eta kaferako, arratsaldeko soinekoak Kasinoko terrazako *thé dansantera* joateko edo Klub Nautikoko bilkuretarako, modelo formalagoak ezkontzetarako eta bestelako zeremonietarako, edo antzokira joateko bestela, eta soineko luze sofistikuak Kasinoko edo Gran Kursaleko gala-afarietarako. Horretarako, alde zuzenetik eskatzen zituzten jantziak beren ohiko modista eta jostunen lantegietan, Madrilen, Parisen zein Londresen, azken joerei segituz. Udan, berriz, Donostian bertan edo Miarrizten erosten zituzten udazkenerako sorkuntza berriak, izan ere, Pariseko moda-etxe nagusiek hainbat sukurtsal jarri zituzten bi leku horietan XX. mendearen hasieran.

Hala, jarduera sozial eta kultural ohikoez gainera, Donostiako dendetan erosketak egitea ere aisialdi- eta sozializazio-esperientzia bat zen berez. Sofia Blasco kazetari eta antzerkilariak, *La Revista Azul* aldizkarian kaleratutako gutunetan, udatiar gazte baten bizipenak irudikatzen zituen, tartean, dendetara egindako bisitak: goiz bakarrean. Blascok gutunaren generora jo zuen, halaber, Lizaso ahizpen moda-etxearen barnealdea erakusteko, zeina Kursaal hiribideko 6. zenbakian baitzegoen 1924tik. Blascoren gutunean, Silvia izeneko udatiar gazteak Ivonne lagunari idazten dio Donostiatik, eta denda horretara egindako bisita azaltzen dio, «orain horra joaten baita *chic* jendea»³: Han ikusitakoa hainbeste gustatu zitzaidan, Miarriztera ez joatea erabaki bainuen»⁴. Gazteak bere adiskideari azaltzen dionez, han igaro zuen arratsaldea, guztiari adi, eta ikusi zituen «mannequin ideala, Parisekoen inbidia-izpirik izan behar ez lukeena», eta «makume argentinar izugarri aberats batzuk», zeinek «bost harribitxi» erosi baitzituzten; gainera, han ikusitako jendearen berri ere ematen du eskutitzean.

Blascoren kontakizunak, batetik, Donostiako moda-eszenaren irakinaldia erakusten digu, baina, horretaz gainera, hiriko moda-profesionalen kalitate- eta bikaintasun-maila adierazten du. Gainera, argi dago profesional horiek eta beren dendek zeregin funtsezkoa izan zutela Donostiako dinamika ekonomiko, sozial eta kulturean XX. mendeko lehen hamarraldietan.

Hipika eta zezenak. Desfilea eta ikuskizuna

Bai zaldi-lasterketak bai zezenketak erakargarriak ziren bertako zaleentzat, udatiarrentzat eta bisitari porrokatuentzat, zeinak Donostiara joaten baitziren Miarritzeko eta inguruko hondartzetatik. Hala, bi gertaeretan, era askotako ikus-entzuleak elkartzen ziren, sofistikuak eta kosmopolitak, eta, haien itxura kontuan hartuta, Lasarteko Hipodromoa eta Txofreko zezen-plaza moda-ikuskizun bilakatzen ziren.

1916ko uztailaren 2an, Lasarteko hipodromo berria zabaldu zen, eta gertaera horrek oihartzun handia izan zuen nazioartean. Europa geldirik zegoen gerraren ondorioz, eta Donostia zen «goi-gizartearen topaleku apurretako bat, ikusteko eta ikusia izateko leku bakanetako bat»⁵; egoera horrek ondorio nabarmenak izan zituen hiriko modan. *Women's Wear Daily* aldizkarian —modaren industria estatubatuarreko profesionalei zuzentzen zitzaion— artikulu bat argitaratu zen, non DeLange, Pariseko berriemaileak, Donostiako lasterketetan ikusitako estiloak azaltzen baitzituen:

Harrituta geratu naiz zer azkar iritsi diren Pariseko azken jantziak Espainiara, izan ere, lasterketetan, besteak beste, Callot, Paquin, Chanel eta Royant etxe paristarren jantziak ikusi nituen, eta beste etxe batzuetako modeloak ere ezagutu; Lewis kapelak hainbeste ziren, ezin ziren zenbatu. Edonola ere, neurri batean behintzat, hori gertatzearen arrazoia hau da: etxe horiek sukurtsalak dituzte Miarritzen, eta emakume espainiar ugari hara joaten dira enkarguak egitera. Horrek erakusten du, bada, beste herrialde batek ere aitoritzen duela moda frantziarraren gailentasuna.⁶

Euskal Kostaldea eliteko turismo-leku gisa finkatu zenean, Pariseko moda-etxe batzuek sukurtsalak zabaldu zituzten Miarritzen, XX. mendeko lehen urteetan. Ondoren, Lehen Mundu Gerra lehertu zela eta, krisia gainditu eta beren jarduerarekin segitu zuten, ahal zuten heinean, eta horretarako aukera baliotsua izan ziren Miarritze eta hango udatiar aberatsak. Gainera, herrialde neutral baten mugatik gertu egonda, Donostiako udatiarrak ere bezero bilakatzeko aukera zegoen; hala, enpresa-proiektuaren interesa areagotu egiten zen. Gatazkaren unerik garratzenetan, goi-joskitzako etxe paristarrek muga zeharkatu zuten bi bider pentsatu gabe, eta zabalgune donostiarreko hotelak eta etxebizitzak alokatu zituzten beren bildumak aurkezteko.

1915etik 1918ra bitartean, Miarritze, nazioarteko prentsaren arabera, munduko lekurik dotoreena izan zen, eta Frantziako moda-hiriburuaren rola ere hartu zuen bere gain: han balioztatzen eta aurkezten ziren denboraldi berriko joerak, berriemaile estatubatuar eta nazioartekoen begirada ernearen aurrean. Hala, Donostia, laster asko, moda-eszena sofistikatu horren zati eta hedapen funtsezko bihurtu zen.

Pariseko modistek Miarritzen eta Donostian beren bildumak erakusten jarraitu zuten 1920ko hamarraldian ere, eta, Pariseko modeloez gainera, Euskal Kostalderako propio sortutako jantziak aurkezten zituzten; askotan, jantzi horiei Euskal Herriarekin lotutako izenak jartzen zizkieten, hala nola euskal geografiako toponimoak —*Géthary* edo *San Sebastián*—, literatura erreferentziak —*Ramuntcho*—, artisten izenak —*Zamacois*— eta euskal herri-kulturako elementuak —*Pelotari* edo *Fronton Basque*—.

Halaber, Pariseko dendetako zabalpen- eta promozio-metodoak ere txertatu zituzten. Charles Frederick Worth-ek —modisto guztiz ospetsua eta goi-joskitza

paristarraren eratzaila—, bere emazte Marie Vernet-ekin batera, sortu zituen estreinako modelo desfileak edo «maniki bizidunak», XIX. mendearen erdialdean. Maria bera zen Worth etxearen dendako maniki nagusia —Parisen zuen egoitza, rue de la Paix kalean—, eta Longchamp-eko hipodromoko zaldi-lasterketetara joan ohi zen denboraldi berriko modeloak soinean zituela; han, balizko bezeroekin egoten zen, eta etxeko sorkuntzak erostera xaxatzen zituen bere itxura dotorearekin. Egitasmo horrek arrakasta izan zuen berehala, eta, luze gabe, Pariseko beste etxe nagusi batzuek, hala nola Paquin, Dœuillet edo Poiret etxeek, gauza bera egin zuten.

Ricardo Martinen argazkiek erakusten duten moduan, goi-joskintzako zenbait etxetako modeloak Lasarteko hipodromoko zelaian eta tribunan barrena ibiltzen ziren paseoan, Parisen bezain aise. Ikusleek estilo sofistikatuak zuten, Miarritzen edo Donostian erositako azken modeloak janzten baitzituzten, eta, horren ondorioz, lasterketak moda-desfile bihurtzen ziren, modari datzekion ikuskizun-kutsuaren isla.

Eliteko kirolak. Erosotasuna eta *sport* moda

Donostian kirol-jarduerak eta bestelako ekintzak egiten ziren aire zabalean, eta hiriaren erakargarri nagusietako bat horixe izan zen; aire zabaleko jarduerak, itsasoan bainatzea bezala, onuragarritzat jotzen ziren bai gorputzaren bai buruaren osasunerako. Gainera, tokiko agintariek eta egitasmo pribatuak, biek ala biek instalazio aproposak sortu nahi izan zituzten eliteko kirol deitzen zaien kirolen inguruan: tenisa, golfa, usakume-tiroa, bailandra-estropadak eta auto-lasterketak, besteak beste. Programazio bizi bat eskaintzen zen denboraldiz denboraldi, eta hainbat lehiaketatan aritzeko zein ikusteko modua izaten zen; halako lekuek, bada, aisiarako eta sozializatze balio zuten, baita estiloa eta dotorezia erakusteko ere.

XIX. mendearen amaieratik aurrera, kirol-jarduerak garrantzia gehiago hartu zuen, eta jantzi espezifiko batzuk sortu ziren, erosotasuna eta mugitzeko askatasuna bermatze aldera; horrek, aldi berean, gorputzaren eta jantziaren arteko harremana berrantolatatu zuen. Kirol-jantzia garatzeko abiapuntua jantzigintza ingelesa izan zen, zeina, berez, XVIII. mendeko aristokrazia lurjabe britainiarraren bizimoduan oinarrituta baitzegoen. Jantzi hori, historian, ehizan jarduteko, zaldian ibiltzeko edo zaldian bidaiatzeko sortu zen, baina, laster, haren erabilera zabaldu egin zen, erosoak, moldaerraza eta iraunkorra zelako; ondorioz, janzkera guztiz aproposa zen trenean zein autoan bidaiatzeko eta modako kiroletan aritzeko. Beraz, traje horren zenbait aldaera egokitu zituzten bertakoek zein atzerritarrek Donostian, eta soinean erabiltzen zuten golfean jokatzeko, zaldian ibiltzeko, tenis-zelaian lehiatzeko, usakumeei tiro egiteko edo automobil-dotoreziaren txapelketetan aritzeko.

Helburu praktikoekin sortu arren, jantzigintza ingelesa, XIX. mendean, dotoreziaren baliokide bihurtu zen moda maskulinoaren arloan. Hamarraldi batzuk geroago, emakumeen jantzitegian ere sartu zen trajea, John Redfern and Sons etxe britainiarraren eskutik, izan ere, Alexandra printzesak etxe horretako jantzi bat eraman zuen soinean Coweseko estropada famatuetan. Printzesa bera oso ospetsua zen, eta ekitaldi publikoetan trajea janzten hasi zenez, modako jantzi bilakatu zen 1870eko



hamarralditik aurrera. XX. mendearen hasiera iritsi orduko, emakumeek, *yatchingean*, golfean, oinezko martxan edo itsasoan zein mendian ibili nahi bazuten, jantzi guztiz eroso eta praktikoa hori erabil zezaketen, modaren eskaerei uko egin gabe.

1910eko hamarraldian, beste aldaketa bat gertatu zen *sport* modaren historian, Gabrielle Chanel izeneko modista gazte eta etorkizun handikoaren eskutik. Chanelek azkar ulertu zuen zer-nolako aukera komertzialak eskaintzen zituzten balneario-hiriei: lehenik, Deauvillen jarri zuen denda bat, 1912an, eta, han izandako arrakastaren ostean, Biarritzen ezarri zuen bere lehenengo moda-etxea, 1915ean. Etxe hartatik, moda irauli zuen, silueta sinplifikatuz eta historikoki jantzitegi maskulinoarekin eta laneko arroparekin lotutako jantziak egokituz. Halaber, Lehen Mundu Gerraren garaian baldintza ohiz kanpokoak elkartu ziren Euskal Kostaldean, eta, testuinguru horretan, Chanelek puntua txertatu zuen emakumeen modan; material fina eta malgu da, eta, ordura arte, barruko arropak egiteko bakarrik erabiltzen zen.

Ricardo Martinek 1915ean egindako argazki batean, esku gida honen bigarren orrialdean ateratzen dena, gazte bat, gazte bat ikusten dugu Donostiako kaleetan barrena doala, erabakimen handiz, eta parean suertatzen zaion jendeak miresmenez begiratzen dio, adi. Soinean, gona eta jakaz osatutako traje bat darama, soila eta modernoa, puntuzkoa; horrez gainera, alkandora zuri bat dauka, lepoak altxatuta, perlazko lepoko soil bat, eta *canotier* kapela bat, inguruan dituen gizonena bezalakoa. Haren jarrerak eta modernotasunak argi islatzen dute zer-nolako eragin berehalakoa eta sakona izan zuen Chanelek, hasiera-hasieratik, Donostiako modan, eta haren arrakastaren neurria ere ematen digu. Chanele sorkuntza arin, original, eroso, praktikoa, soil eta dotoreek harrera beroa izan zuten Donostian, eta nonahi agertzen ziren: kalean eta hondartzetan, baina baita estropadetan, tenisean edo golfean ere. 1920ko hamarkadan, Chanel, Patou eta Lanvin diseinatzaileen gona tolesdunak eta puntuzko jertse eta berokiak jaun eta jabe bihurtu ziren emakume modernoaren jantzitegian, arlo horretan *sport* moda baitzen erregina.

Euskal Kostaldeko bizimoldeak, zeinak aire zabaleko jarduerak eta egutegi sozial bizi-bizia batzen baitzituen, moda-estilo zehatz bat sustatu zuen, *sport* izenekoak: laster asko, korrante nagusi bihurtu zen Parisen zein nazioartean. Fenomeno nagusiki kosmopolita hori, bada, tokiko kultura jakin batean garatu zen, zeinak erro sakonak baitzituen, eta kultura horren exotizazioak ere izan zuen zerikusirik Euskal Kostaldeko turismoarekin. Modak, izan ere, era askotako kultur erreferentziak beretzat hartzeko joera lotsagabea agertzen du beti, eta, azkar asko, bere berritasun-egarria elikatzeko elementuak aurkitu zituen euskal kulturaren.

Bizitza soziala. Luxua eta sofistikazioa

Hondartzaren zein itsasoaren mirariak eta aire zabaleko bizitza aktiboaren onurak ez ziren Donostiaren xarma bakarrik udatiarrak hurbilarazteko. Horrez gainera, barra-barra antolatzen ziren kontzertuak, antzezlanak eta bestelako emankizunak, maskaradantzaldiak, harrerak eta galak; ondorioz, Donostiako uda bereziki jai-girokoa eta gautxorria zen. Garai hura bizi izan zutenen esanetan, jende askok oporrak hartu behar izaten zituen hiriko neurrigabekieretatik atseden hartzeko. Kronikari batek hala aitortu zien bere irakurleei 1919ko udan:

Neuk bezala udaldi bat igaro dutenek Donostia esaten zaion Babilonia horretan, eta egunero-egunero joan direnek hondartzara, kontzertuetara, paseatzera, *matiné*etara, tenisean jokatzera, golfean kokatzera, dramak eta komediak ikustera; gaua ondo zukutzeko ordu bietan edo hiruretan oheratu direnek, eta goizeko zortzietan altxatu, goiza ere ondo zukutzeko; horiek guztiek ondo ulertuko dute zer-nolako gogoarekin hartu dudan gaur Bidasoako trena, behin udako denboraldia amaituta, eta zer pozik etorri naizen Nafarroako bazter atsegin eta lasai honetara Donostiako udaldiko bizimodutik atsedeen hartzera⁷.

1924tik aurrera, jokoa debekatu zenez eta turismoa gero eta gehiago demokratizatu, kultur eskaintza areagotu zen hirian, Miarritzerekin eta mugaz beste aldeko euskal hondartza batzuekin parez pare lehiatzen segitu ahal izateko. Hala, Donostiako bizitza sozial biziari ekitaldi gehiago erantsi zizkieten: erromeriak, euskal jaiak, moda-desfileak eta era guztietako lehiaketak, besteak beste, edertasuna, automobilen dotorezia, bainujantziak eta *cocktail*ak neurtzen zituztenak.

Garaiko beste kronikari batek adierazten zuenaren arabera, programa hori betetzeko, «goizez traje bat, arratsalde bestea bat, eta gauetz beste bat»⁸ eduki behar ziren, egoera guztietan dotore agertzeko helburuarekin. Beraz, kirol-jantziez eta arratsaldeko soinekoiez gainera, Donostiako bisitariek gaueko modelo sofistikatuak izan behar zituzten, eta ez gutxi, ekitaldi formaletan zein ausartetan jantzeko. Donostian, jostintza-lantegiak ugaritu ziren, eta bertako moda-profesionalak bikainak ziren; horri esker, eskaera guztiei erantzuteko modua izaten zen.

Etxe donostiarrek, irailaren hasieratik, denboraldiko modelo berriak aurkezten zituzten beren aretoetan, baina, horretaz aparte, batzuetan ahaleginak egin behar izaten zituzten bezeroen ezusteko eskaerei erantzuteko. Maiz, ohiz kanpoko ekitaldiak suertatzen ziren, denboraldiko planifikazio zorrotzean aurreikusitako gabeak, hala nola maskara-dantzaldiak, dotorezia-lehiaketak, ongintza-galak edo festa tematikoak. Ohiz kanpoko egoera horietako bat 1928ko irailean gertatu zen, ongintza-festa bat antolatu baitzen, euskal gaiei buruzkoa, Satrustegi dorreko lorategietan. Festa hartan, Donostiako eta atzerriko familia aristokratikoetako gazteek, euskal jantzi tradizionala soinean zutela, tea, erroskillak eta ogitartekoak saldu zituzten, eta, aldi berean, dantzak eta kantu herrikoiak eskainiko ziren. Festa hark ez zuen zerikusirik Umore Ona elkarteak Martutenen antolatu ohi zituen erromeriekin, eta parte-hartzaile askok modista donostiarrengana jo zuten halako ekitaldi dotorean zer jantzi izateko.

Aste batzuk lehenago, Donostiako Prentsaren elkarteak jaialdi goiesko bat antolatu zuen, arrakasta handiz, eta bi ekitaldi nagusi izan ziren: zezenketa goieskoa, non zezenketaren aurretik desfile ikusgarri bat eskaintzen baitzen, eta dantzaldi goieskoa, non afari bat ere antolatzen baitzen zezenketako lehendakarien omenez, Kasino Handian. Ignacio Zuloagak zuzendu zuen ekitaldia, eta Goya margolariaren garaiko zezenketak birsortu nahi ziren, seriotasunez eta zorrotzasun historikoz betiere, horretarako, «traje tipiko baliotsuak jantziko ziren, toreatzaileen modisto ospetsuak, Uriarte jaunak, propio sortuak»⁹. Antolatzaileek ez zuten espero parte-hartzaileek traje historikorik jantzea, baina Ignacio Zuloagak hau adierazi zuen zezenketaren bezperan: «Pena itzela litzateke emakume guztiek gure eskaerari ez erantzutea eta zezenketara

mantelinarik edo zetazko xalik gabe etortzea»¹⁰. Erantzuna azkar etorri zen, eta, zezenketaren aurreko egunetan, hainbat dendak iragarkiak jarri zituzten hedabideetan, ekitaldi hartarako apaingarri bikainak zituztela adieraziz. Nabarmentzekoak ziren, adibidez, Ramón Hernández etxeko «xalak, mantelinak, apain-orraziak, haizemaileak eta loreak, garai haren isla fidelak»¹¹, denak ere ekitaldi hartarako propio prestatuak.

Era berean, hiriko moda-etxe nagusiek bereak eta bi egin zituzten Kasinoko gaudantzaldirako eskaera ugariak bete ahal izateko. Arrakasta gehien izan zuten jostunen artean, Cristóbal Balenciaga aipatu behar da; ordurako, ospe koskorra eskuratu zuen Askatasunaren Hiribideko bere egoitzatik. Haren lantegitik atera ziren, besteak beste, María eta Carmen Picavea ahizpen eta María Teresa Achalandabaso gaztearen gau-soinekoak.

Ekitaldiaren ostean, prentsak aitortza eskaini zion moda-arloko profesionalen lanari, arrakastaren faktoreetako bat izan zirelakoan, eta omendu egin zituzten:

Dotorezia hura guztia, moda-modako jantzi luxuzko guztiak —esan dezagun, bada, hiriaren omenez—, gure lantegi donostiarretan sortutakoa zen. Ozen esan dezakegu: joskintzaren eta modaren artean, Donostiak ez die inbidiarik izan behar Pariseko modazentroeij¹².

Modistak eta jostunak. Ofizioa eta bikaintasuna

Donostian moda-dendak loratzearekin batera, emakume askok —jostunak, kapelagileak, ebakitzaileak, probatzaileak, brodatzaileak, saltzaileak eta modeloak, besteak beste—, industria indartsu horri esker modua izan zuten independentzia lortzeko, ekiteko eta sortzeko. Lanbide-heziketarako erakunde ugari zeuden, hala eskola artistikoak nola teknikoak, baina modaren industrian lan egin nahi zuten neska askok etxean edo familian ikasten zituzten ikasi beharrekoak, eta, ondoren, lantegietara edo dendetara jotzen zuten beren trebetasunak fintzera; Donostiara, Miarriztera edo Bilbora jotzen zuten, baina baita Europako hiriburuetara ere, hala nola Parisera, Londresera edo Madrilera. Batzuetan, beren negozioa ere zabaltzen zuten, sozietate berriak osatuz edo lehendik ere prestigio handia eta bezero fidelak zituzten denden eskualdatzea beren gain hartuz. Garai hartan, Paris zen modaren nazioarteko hiriburua, eta, horregatik, emakume asko hara joaten ziren jantziak erostera, beren senari jarraituz eta beren bezeroei buruz zituzten ezagutza sakonak aintzat hartuta.

1910eko hamarkadan, Donostian emakume profesional nabarmenak ari ziren lanean modaren arloan; horietako asko, hirian ezarri aurretik, mugaz haraindi joaten ziren ikasketak egitera. 1887an, adibidez, Echeverria ahizpek denda bat jarri zuten Garibai kaleko 20. zenbakian, Pariseko Levilion etxe ospetsuan lan egin eta gero. Helbide berean, Echeverria ahizpen ostean, beste ahizpa batzuk iritsi ziren, Victoria, Dolores eta Petra Múgica; Modas Múgica denda mitikoa zabaldu zuten, kapelak sortzeari eta saltzeari eskainia. Hondarribia kaleko denda berri eta famatua zabaldu ostean, Maria Cristina eta Victoria Eugenia erreginen hornitzaile ofizialak bihurtu ziren, Eustachette Urdapilleta modista donostiarra bezalaxe. Eustachette Urdapilleta, beste jostunen antzera, Parisera joaten zen maiz, azken joerak ezagutzera eta modeloak

erostera; berak sortutako jantziekin batera, besteenak ere saltzen zituen eta. Sofía Blasco kazetari eta antzerkilariaren arabera, «madame Eustachetteren talentuaren gakoa ez da soilik jantziak erosi eta kopiatzen dituela; aldiz, ederki asmatzen du modako gehiegikeriak gure girora egokitzen, eta, begi-kolpe bakarrarekin, bezeroari adierazten dio zer komeni zaion; modako artistentzat ezinbestekoa da zintzotasuna eta *coup d'oeil* zail hori, eta jostun honek biak dauzka».

1920ko hamarkadan, urrezko aro bat gertatu zen Donostiako modan. Euskal Kostaldean, Miarritzek zeukan zeregin nagusia, baina herri horren itzalak eragina izan zuen Donostian ere, non gune indartsu bat garatu baitzen ekintzaile-belaunaldi berri baten eskutik. Aipatzekoak dira, besteak beste, Casa Derbyko Federico Bandrés, Ramón Hernández eta hainbat emakume, hala nola Elisa Arin, Romero eta González, Paulina Alfaro, Louise Ransinangue eta Lizaso ahizpak. Horiek guztiak erreferenteak ziren bai Donostiako bezeroentzat baita udatiarrentzat ere.

Donostiako moda-profesionalek kalitate eta bikaintasun handia lortu zuten, eta, horri esker, laster asko posizio sendo bat eraiki zuten Miarritzen finkatutako moda-etxe nagusien aurrean. Donostiako etxeek Pariseko goi-joskintzako modelook erosteko baimena zuten, bazuten eskarmentua merkataritzan, eta prestakuntza handiko taldeak zituzten; hala, hainbat hamarkadaz Miarritzeko denda eta sukurtsal paristar ospetsuetara joandako bezero berak erakartzen zituzten. Horrenbestez, sortzaile frantziarrek, berriro ere, beren bildumak Donostian aurkeztea erabaki zuten, eta ekitaldiak antolatzen hasi ziren beren aretoetatik kanpo; halako hitzorduetara ez zuten hutsik egiten Donostiako modaren munduko bezeroek, erosleek eta bestelako profesionalek. Besteak beste, nabarmentzekoak dira Modaren Jaiak, zeinak Gran Kursaaletan antolatu baitziren 1924an: moda-desfileak egin ziren, eta Pariseko hoge modelok hiri horretako etxe ospetsuetako ehun modelo erakutsi zituzten, besteak beste, etxe hauetakoak: Doeuillet, Redfern, Beer, Martial et Armand, Nicole Groult eta Philippe et Gaston. Maniki famatuak eguneko eta gaueko modelook jantzi zituzten bai Kursaaletako aretoetan baita kalean ere, eta, halaber, Donostiako kultura- eta kirol-jardueretan parte hartu zuten.

Cristóbal Balenciaga, ziur aski, Gran Kursaaletako desfileetara joango zen 1924ko irailean. Garai hartan, jostun gaztea izapideak egiten ari zen Askatasunaren hiribideko 2. zenbakian kokatu ahal izateko: hura izan zen, gerora, jostunaren aretoen egoitza, harik eta 1968an bere etxe mitikoa itxi zuen arte. Balenciagak, bada, bakarkako ibilbideari ekin zion, Ignacia eta Daniela Lizaso ahizpekin sei urtez bazkidetzan jardun ondoren; Lizaso ahizpek, beren aldetik, Kursaal hiribidean jarri zuten negozioa 1924an. Balenciagaren ibilbide luzean, une hura oso garrantzitsua izan zen, une gozo bat, gerraren hasi baino lehen eta bere asmoai jarraituz Parisera alde egin eta nazioarteko arrakasta eta aitortza eskuratu aurretik. Cristóbal Balenciagaren kasuak ederki islatzen du Donostia eta Euskal Kostaldea nazioarteko modaren gune bizi-biziak izan zirela XX. mendeko lehen hamarraldietan.

- 1 «Cómo se bañan nuestras artistas», *Mundo gráfico*, 1914ko irailak 16.
- 2 *La Moda Elegante*, 1911ko irailak 22, 129. or.
- 3 «De Modas en Casa Lizaso», *La Revista Azul*, 1925eko urria, 51-52. or.
- 4 Ibidem.
- 5 «San Sebastian races, fashion and society event, in full swing. Creations of Paris couturiers worn by visitors from France and Spain», *Women's Wear Daily*, 1916ko irailak 21.
- 6 DeLange, «Striking sports costumes worn at San Sebastian», *Women's Wear Daily*, 1916ko urriak 20, 20.
- 7 «Desde mi celda. Cartas de todas partes», *La última moda*, 1919ko urriak 20, 7. or.
- 8 «Crónicas mundanas», *La moda elegante*, 1916ko irailak 22, 124. or.
- 9 «Nueva Plaza de Toros de San Sebastián [Material gráfico] : gran corrida Goyesca organizada por la Asociación de la Prensa de San Sebastián», Prentsaren Elkarte, 1928ko uztailak 22.
- 10 «Las presidentas de la corrida de todos. El baile goyesco del Gran Casino», *El Pueblo Vasco*, 1928ko uztailak 20, 1. or.
- 11 «El día de Goya », *El Pueblo Vasco*, 1928ko uztailak 18, 3. or.
- 12 «En honor de las presidentas. El gran festival del domingo en el Casino», *El Pueblo Vasco*, 1928ko uztailak 24.

Erakusketa
Donostia, moda-eszena

Antolamendu eta koordinazio orokorra
Kubo Kutxa. Kutxa Fundazioa

Komisariotza eta testuak
Miren Arzalluz

Erakusketa diseinua
Hiruki Studioa

Diseinu grafikoa
Estudio Lanzagorta

Dokumentazioa
Fototeka Kutxa Fundazioa

Kontserbazioa
Pilar de la Serna
Anna Ferrer

Argazkien edizioa
Niko Iturralde
Marina Palacio

Markoztatze lanak
El Taller Restauración

Argazkien inprimaketa
room278 studio

Garraioa eta enbalatzea
Expolan

Zurgintza
Lankor

Margolaritza
Eva Martínez

Muntaia eta argiztapena
Expolan

Artxiboa eta filmen digitalizazioa
Euskadiko Filmategia

Ikus-entzutezko muntaia
Colibrí Studio

Ikus-entzunezko zerbitzuak
Láser Audiovisuales

Itzulpenak
Rosetta T.Z.
Peter Sotirakis

Errotulazioa
Druck

Bideo dokumentala
Gosho

Hezkuntza
Koma Zerbitzu Kulturalak

Inprimaketa
Michelena Artes Gráficas

Laguntzailea



Kubo Kutxa aretoak bere esker ona adierazi nahi die erakusketa honetan modu batean nahiz bestean parte hartu eta lagundu duten pertsona eta entitateei.

Eta bereziki:

Luis Madina
Tomás Alday
Gabriel Otegui Polit

Erakusketa honetan erakusten diren argazki guztiak Fototeka Kutxaren Photo Carte eta Foto Marín funtsekoak dira.

Jarduerak

Bisita komentatuak

Larunbatero, 17:30ean euskaraz eta 18:30ean gaztelaniaz.
Doakoak, aurretik eman behar da izena

La Côte Basque, ideia eta joera berrien laborategia

Irailak 21, osteguna, 18:30ean
Miren Arzalluz Loroño, komisarioaren hitzaldia
Doakoa, webgunean eman behar da izena

Gipuzkoa, ehungintza: herentzia eta egiten jakitea

Kutxa Kultur Modaren lankidetzarekin
Kubo Kutxan
Doakoak, webgunean eman behar da izena

Lau diseinatzaile, lau proiektu, lurraldeko industriarekin,
herentziarekin eta egiten jakitearekin loturak eta zubiak egin eta
gaur egunera hurbildu dituztenak.

Uztailak 6, osteguna, 18:30ean

Tytti Thusberg for Boinas Elósegui - egile txapelak

Abuztuak 3, osteguna, 18:30ean

Kotoi: iraganean inspiratua, etorkizunera begira diseinatua

Irailak 7, osteguna, 18:30ean

Amarenak: jantzita eramaten diren istorioak

Urriak 5, osteguna, 18:30ean

Fanny Alonso – Kotoiaren emakumeak. Bizi istorioak

Erakusleihoak 1915-1935

Kubo Kutxaren eta San Telmo Museoaren arteko lankidetzaz
Moda eta lurringintzari lotutako XX.mende hasierako dendak
historian zehar egindako ibilbidea. Zatoz beraien erakusleihoetara
eta beraien iragana eta oraina deskubritu ezazu.

Parte-hartzaileak: **Casa Ponsol**, 1838 (Narrika, 4), **Guante Varadé**, 1912 (Boulevard, 16), **Irulea**, 1932 (Kale Nagusia, 7), **Perfumería Benegas**, 1908 (Garibay, 12), **Perfumería Matilla**, 1928 (Kale Nagusia, 7), **PYC**, 1930 (Kale Nagusia, 15) eta **Sombrerería J. M. Leclercq**, 1932 (Narrika, 18).

Informazioa eta erreserbak

T. (+34) 943 25 19 39

E. hezkuntza_kubo@kubokutxa.eus

Ordutegia

Asteartetik igandera

12:00-14:00 y 16:00-20:00

Sarrera
doan

Kubo Kutxa

Zurriola, 1. Kursaal
20002 Donostia / San Sebastián